



LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA

Lezo Airetik

(1959-1970)



© Argazkiak
Paisajes Españoles, S.A.

© Testuak
Lander Zurutuza Sunsundegi

© Diseinua eta inprimaketa
Otzarreta Komunikazioa S.A. (Zarautz)

© Edizioa
Lezoko Unibertsitateko Udala 2010

© Kontrazaleko irudia
Didier Petit de Meurville. Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa

ISBN
XXXXXX

Lege Gordailua
SS-XXXXX

Lezo Airetik (1959-1970)



2010

*Arrantzaleen oihartzuna hauts industrialetan itota
eta arrantzontziak altzairutan hondoratuta.*

Asier Sarasola (2002)

Lezo Airetik

(1959-1970)

Historia luzeko herria da Lezo. XIIIgarren mende hasieran Guillermo de Lazon eta haren kideak jada bertako lurretan bizi ziren. Haien itsas jardueri estu lotuta zeuden Port de Lazon eta Port de la Borda, gerora Lezoandia eta Bordandia bezala ezagutuko ziren etheen behealdeko ontziralekuak.

Hurrengo mendeetan zehar lezoar asko eta asko marinela izan ziren: besteak beste batelariak, arrantzaleak, itsasmutilak, artilleroak, pilotuak, kapitainak, baleazaleak, kortsarioak eta merkataria. Beste asko zurginak, ontzigileak, errotariak, apaizak, serorak... Baziren, noski, abeltzainak eta laborariak ere. Baina ardoa eta garia bezalako oinarritzko zenbait gairi begiratuz gero bertako produkzioa defizitarioa zen, sagardogintza ez bezala. Hori zela medio, merkataritzaz gain emigrazioa ere egon zen, batik bat Amerika aurkitu eta konkistatu zenez geroztik.

XIXgarren mendeko lehen herenean, industrializazio kapitalista eskualdera iristeko bezperan alegia, Lezok mila biztanle inguru zituen¹. Ia guztiak baxurako arrantzatik bizi ziren, edo baserritik. Eta familia gehienak eskasian bizi ziren.

Industriaurreko Lezo hura zuzenean edo zeharka islatzen duen irudirik badago. Besteak beste auzietan proba gisa aurkeztutako krokisak. Portua irudikatzen duten planoak (1636an Soto, Gandolfo eta Teixeira Albornozen ingeniari militarrek eginakoa; 1760ko anonimoa...). Eta kanpotarrek marraztutako herriko paisaiak (Richard Lyde Hornbrook-ek 1830eko hamarkadan, Julio Lamba-k 1846an, Didier Petit de Meurville-k 1858an...).

XXgarren mende hasieran jada baziren Lezo gaitzat zuten argazkiak, postal gisa

argitaratuak. Ordurako lezoar asko fabriketako langileak ziren², baina inor gutxi bizi zen itsasotik. Bestalde hastapenetan zegoen herriko industrializazioa errotu egingo zen mendeak aurrera egin ahala, demografia, ekonomia zein gizarte mailan aldaketa sakonak eraginez. Erlikean eta airearen kalitatean bere arrastoa utziz.


1959an Lezoko airetiko lehenengo argazkiak atera ziren. Paregabea da horiek ematen duten lekukotasuna. Paisajes Españoles enpresa izan zen egilea, eta harrezkero erregulartasunez jarraitu du zeregin horretan. Liburu honek 1970a bitartean ateratako argazkien hautaketa zabal bat eskaintzen du, azalpen eta aipamen literarioen laguntzaz.


Lander Zurutuza
Lezo, 2009ko abuztuak 31

¹ 1822ko Lezoko akta batean jasotako aipamena: *“atendiendo al corto vecindario de este pueblo que apenas llega á mil almas [...] hallandose por otra parte en estado deplorable para hacer limosnas, la mayor parte del vecindario, que se compone de pescadores, que su corta ganancia no les llega para el sustento diario de sus familias”* (1822/05/24. Lezoko udal agiritegia: A/1/1/5).

² 1845ean Errenteriako “Sociedad de tejidos de Lino” lantegia sortu zen, eskualdeko industrializazio kapitalistari hasiera emanez.

1959-1960





1959ko maiatza.

1959an Errege ontziolak jarri ziren Port de la Bordan (edo Bordalabordan), gaurdaino iraun duen tradizio luze bati segida emanez. Bertan mundu mailako ontzigintzan punta puntakoak ziren galeoiak eta beste motatako itsasontziak eraiki ziren. Irudian Luzuriaga ontziola, Pasaiako udalerrian, Erroteta eta Kosta.



1959ko maiatza.

XXgarren mende hasieran Errotetatik Kale Nagusiraino dena itsasbazterra zen, eta marearen joan etorriek etengabe itxuraldatzen zuten herria. Inaxio Artolaren (Lezo, 1913) esanetan, Arpidenea etxeko ahate multzoa iskanbila betean jaisten zen Kale Nagusitik uretaraino, Erramuntxonea etxearen pareko eskaileretan barrena.



1959ko maiatza.

1843ko abuztuaren 8an Victor Hugo Lezon izan zen. Bisitaldi hartan ikusitakoak eta bizi izandako aldarteak deskribapen gogoangarri batean bildu zituen, *Voyages* liburuan irakur daitekeena. Pasai Donibanen hartu zuenez ostatu Sanjuanbidean barrena etorri zen. Ia mende bete geroago Daniel Garbizu “Iruzubi”k (Lezo, 1897) *Pasai bide* olerkia eskainiko zion bide horri berari: “*Barruti ertzeko gaztaindi bide / zera zu izendatua, / zugaitz ta lorez, ibai, itxasoz / bai ederki inguratua...*”.



1959ko maiatza.

Gerraurrean Andrés Saez de Parayuelo industriagizonak Andres-Enea izeneko ontzitegia eraiki zuen Puntalen, baraderoa, arrantzako baporeen konponketa eta pintaketa lane-tarako. Kaian biltegiak eraiki ziren, itsasoari irabazitako lurren kontura. Irudian Aserraderos de Lezo (Aserraderos de Maderas Coloniales zena) enpresaren instalazioak, aipatu bi parajeak hartzen dituztela: zerrategia, muelleak, biltegiak eta enborrak uretan mantentzeko itxiturak.



1959ko maiatza.

Sociedad Navarra de Industrias (gerora Industrias y Abonos de Navarra izango zena), herritarren artean “Zikin” bezala ezaguna. Kaian zegoen kokatua, XIXgarren mendeko kanposantu zaharra egon zen paraje berean. Iparraldean Aserraderos de Lezo zeukan, ekialdean Jauregi alde etxadia eta hegoaldean Zubitxo erreka azken zatia. Irudiaren eskuinaldean Pildainen baratza, harrizko itxituraz inguratua. Eta haren jarraian Palazio-zarreko lurrak.



1959ko maiatza.

"Zikin"en azido sulfurikoa egiten zen, baita beste gai kimiko batzuk ere. Oso fabrika kutsatzailea zen. Arazoak eragiten zituen arnas aparatuan. Fernantxo Intxaurrendietak (Lezo, 1947) gogoan du, beste herritar askok bezala, nola pirita gordina erretzen zuten bakoitzean hauts gorri-gorria hedatzen zen Jauregialden barrena.




1959ko maiatza.

Irudiaren atzealdean Arraitoki: Croma, eskabetxeria (Cooperativa de las Cofradías de Pescadores de Guipúzcoa) eta Francisco Larrañagaren lantegia. XXgarren mende hasieran zabaldegi hori guztia padura zen, Dario de Regoyosen *La iglesia de Lezo* pinturak erakusten duen bezala. Baina Andrés Saez de Parayueloren ekimenez lehortu egin zuten, eta industrigune bilakatu zen. 1924an Jon Garbizu “Zubigar”ek (Lezo, 1893) argitaratutako *Arrai tokia* olerkia aldaketa horren lekukotza hunkigarria da.



1959ko maiatza.

Irudiaren atzealdean Real Compañía Asturiana de Minas-ek 1894an eraikitako pintura fabrika (Fábrica de Albayalde y Minio), Errenteriako udalerrian. Altzaten zegoen kokatua, itsasoari irabazitako lurretan. Iparraldean Zubitxo erreka azken zatia zeukan, hegoaldean trenbidea eta mendebaldean Oiartzun ibaia.



1959ko maiatza.

Txapa fabrika (Manuel de Acha y Cía.), garai batean Lezoandia etxearenak izan ziren lurretan; Bekoerrotaren presak hor behar zuen izan. Irudiaren aurrealdean eskabetxeria eta hiltegia. Ezkerraldean Antonio Pildain eskola, Markesane eta udaletxe atzean existitu zen zuhaiztia, Goikosoro izenekoa. Atzealdean, errepide egin berriaz haraindi eta Zubitxo etxearen ondoan, Jose Maria Leturia alkate ohiaren (1958an utzi zuen kargua) etxea eta lorategia: Villa Aterbea.




1959ko maiatza.

Txapa fabrian zurezko taula kontratxapatuak egiten ziren. Irudiaren eskuinaldean Villa Bat eta Villa Bi, hiltegia, eskabetxeria eta Linoenea etxeko lurretatik Zubitxo erreka baino bereizten ez duela Croma, non alumina sulfatoa egiten baitzen. Ezkerraldean Markesane, Lezoandia etxe desagertuaren kokapena. Lope de Isastiren (Lezo, XVI) esanetan, 1203ko Hondarribiko hiri gutunean aipatzen den Guillermo de Lazon bertako nagusia izan zen.



1959ko maiatza.

Gaintxurizketako errepidearen lehenengo zatia, gaur egungo Elias Salaberria hiribidea. Bide bazterrean Maintzine baserria, belar metak ondoan dituela. Haren jarraian berniz fabrikaren (Guittet y Cía.) instalazio zaharrak, jada Aserraderos de Lezo enpresaren esku. Irudiaren atzealdean Pysbe eta San Pedro auzoak, Jaizkibel galdaragintza lantegia eta azkenik Fundiciones Lezo S.A.



1959ko maiatza.

Berniz fabrikaren pabilioi zaharrak eta Guittet etxea. Irudiaren ezkerrean Maintzineko harrobia. Aurrealdean Arretxene baserria, Lucas Arrechek XIXgarren mendean eraikia, eta Pysbe auzoko etxea, Luis Praderaren bustoa aurrez aurre duela. Eskuinaldean labaderoan barrena zetorren kanposantuko bidea. Eta haren alboan Plazeta baserriraino hedatzen zen baratze sail ederra.



1959ko maiatza.

Norteko trena 1863an iritsi zen Lezora. Lantegi berrien kokapenari begira trenbidearen inguruko lurren balioa asko handitu zen. Baina, besteak beste geltoki berriaren kokapena zela medio, desadostasunak sortu ziren Lezo eta Errenteriaren artean. Eta hogeita bost urtetik gora iraungo zuen auzian sartu ziren. Bi herrien artean ez zegoen mugarririk eta ezinbestekoa zen mugak zehaztea. 1889an egin zen mugaketa, “Lezo-Renteria” tren geltokia Lezoko udalerrian kokatuz.



1959ko uztaila.

Lezo eta Errenteriaren arteko mugak zehaztu zirenean, lehorreko lurak Lezoren esku geratu ziren. Oiartzun ibaiak bustitakoak edo hari irabazitakoak, aldiz, Errenteriaren esku, pintura fabrikak hartuko zituenak kasu. Irudiaren atzealdean Altzateberri etxea, zepillo fabrika (Lobato) eta gaileta fabrika (Pakers).



1959ko uztaila.

Miguel Angel Barcenilla lezoarrak Errenteriako industrializazioaren bilakaera aztertu zuen *La pequeña Manchester* liburuan. Haren esanetan, kapital belgikarrarekin sortutako pintura fabrikak 1903rako jada 48 langile zituen, guztiak gizonezkoak. Errenteriako beste zenbait lantegitan bezala hor ere langile asko Lezokoak ziren.



1959ko uztaila.

Real Compañía Asturiana de Minas-ek beste faktoria bat zuen Erreterian pintura fabrikaz gain: Kaputxinoetako (edo Matxingoko, edo Komentuko) berun fundizioa. Bietan zaharrena zen, 1859an sortua. Eta handiena: 1903an 160 langile zituen, guztiak gizonezkoak. Juan Jose Sarasola “Lexo” (Lezo, 1867) eta Pedro Agirre (Ataun, 1882 - Lezo, 1940) bertsolariak eta Jon Garbizu “Zubigar” olerkaria bertan lanean ibiliak ziren. Irudiaren atzealdean, Oiartzun ibaiatz haraindi, berun fundizioa.



1959ko uztaila.

1837an karlistek su eman zioten Matxingo muturreko kaputxinoen komentuari. Eta urte gutxiren buruan, liberalismoak berekin zekarren desamortizazioaren ondorioz, berun fundizioaren instalazioek hartuko zuten hango sagardi, baratze, udareondo, aranondo eta abarren lekua.



1959ko uztaila.

1626an Lope de Isastik honako hau zioen: “*El lugar de Lezo es sano, de buenos aires y de recreo*”. Ingurugiroaren ikuspegitik Kaputxinoetako berun fundizioaren irekiera mugarrizko izan zen, ziklo aldaketa baten ataria. Iraganeko aire garbi haiek ez ziren sekula itzuliko.



1959ko uztaila.

1868an Donibane kaleko Etxetxo etxeko nagusi Joaquin Domingo de Michelena errenteriarra kexu zen Lezoko agintarien aurrean. Haren esanetan, 1860tik 1867ra bitartean Etxetxoko lurretako uztak galdu egin ziren Kaputxinoetako fabrikako keen ondorioz. Eta hori zela medio, Salvador Icatzatea maizterrak lur horiek landu gabe utzi zituen, eta errenta ordaindu gabe. Hain egoera larria arintzeko asmoz kontribuzioa ordaintzetik salbuestea eskatu zuen.



1960ko abuztua.

1960an Lezok jada 3.296 biztanle zituen (1900ean 1.198 besterik ez). Industria berriak sortzeaz gain hirigunea bera ere, noski, handitu egin zen. Pysbe eta San Pedro auzoak sortu berriak ziren, eta baita zenbait etxe han hemenka, Villa Bat, Villa Bi eta Villa Iru kasu. Irudian Donibane kalea, Jauregialde barne, Goiko eta Beko plazak eta Kale Nagusia. Errepide egin berriaz Jaizkibel aldera besteak beste Lore Artean, Au Zerua eta Arrobbialde etxeak, baratze eta sagardiz inguratuak.



1960ko abuztua.

Portuaren hedapena Pasai Antxo eta Erreterian barrena: Antxoko, Molinaoko, Kaputxinoetako eta Petrolioetako muelleen eraikuntza lanak. Irudiaren atzealdean Erroteta eta Puntale bitarteko erribera, Kosta zeritzotena. Patri Urkizuk (Lezo, 1946) *Zeren azken finean* liburuko olerki eder bat eskaini zion paraje horri: “*Kostaburuko hondartzan / natza, / izarren izara / zuriskapean, / urrezko hobi / izarniatuan...*”.



1960ko abuztua.

Lezon baxurako arrantzaren gainbehera XIXgarren mendean eman zen. 1821ean baziren hirurogeita hamabostetik gora arrantzale. Hamarkada gutxiren buruan, ordea, fabriketako lana arrantzari errelebua hartzen hasiko zitzaion. 1960an oraindik bazen txaluparen bat edo beste Kaiako pabetara lotua. Baina hurrengo hamarkadan Lezoko erribera guztia, Pasai Antxokoaren antzera, porlanpean estalita geratuko zen.



1961-1970



1962ko maiatza.

Irudiaren ezkerraldean Bordandia etxea, Bordalabordako auzo berriaren goialdean, Pasaiaiko udalerrian. Lezoandiarekin batera inguruko etxe zaharrenetako bat izan zen. Garai batean Bordandiak bere hilobi propioa zeukan Lezoko San Juan Bataiatzailearen eliz barrenean. Eta bertako semeek Lezoko kargudun izateko eskubidea zuten. 1974an erre egin zen, eta betirako galdu.



1963ko urria.

Portuaren hedapena Lezon: Kaiako muelle berria. Bertako padura desagertu egin zen, eta harekin batera txalupak lotzeko erabiltzen ziren azken pabak, herriko baxurako arrantzaleen oroimena bera ere galbidean jarritz. 1926an Tomas Garbizu “Tege”k (Lezo, 1901) *Arkaitzeko ama* idatzi zuen, arrantzale horiei eskainitako ipuin hunkigarria.



1963ko urria.

1963an plaza berri bat eraiki zen aisialdirako, batik bat herriko jaiak behar bezala ospatu ahal izateko. Udaletxea, Markesane, frontoia eta goiko elizaren artean zegoen zuhaiztia bota egin zuten, eta bertako mendi zatia hustu. Lanak zirela medio udaletxearen atzeko horma konpondu egin behar izan zuten. Eta goiko elizaren absidean pitzadura bat sortu zen. Juan XXIII eman zioten izena, aita santu hil berria gogoan, tronuan jarri baino lehen-
txeago Lezoko Gurutze Santuaren basilikara egindako bisitaldiaren oroigarri. Zinegotzi batek Elias Salaberria margolariaren izena proposatu zuen.




1963ko urria.

Irudian Kaiako parajea, Donibane kaleak eta Kale Nagusiak inguratzen dutela: “Zikin”, muelle berria, Aserraderos de Lezoren biltegiak eta Erramuntxonea etxearen behealdeko plazaratxo zuhaitzez betea. Sociedad Navarra de Industrias behin eta berriro saiatu zen bertan zituen instalazioak handitu eta superfosfatoa egingo zukeen fabrika berri bat eraikitzen. Baina udalaren jarrera beti kontrakoa izan zen.




1963ko urria.

1973an Patri Urkizuk *Breve estudio antológico y léxico del tema marino vasco* artikulua argitaratu zuen. Bertan arrantzaren mundua gogora dakarkigun hiztegi zabal bat ere osatu zuen, non besteak beste Lezoko arrantzaleen ahotik jasotako tresna, ontzi, arrain, itsaski, landare, jarduera eta abarren izenak ageri baitiren.




1964ko otsaila.

1963an planta siderurgiko bat eraikitzeke baimena eman zitzaion Esteban Orbegozo enpresariari. Hura egiteko iturri bat, lur emankor ugari eta bi baserri zahar bezain handi suntsitu ziren, Barunga eta Lopene. Irudian Esteban Orbegozo S.A. (gerora Aceros Corrugados izango zena) fabrikaren zimendatze lanak: Barunga jada botea, Lopene oraindik zutik, aurrealdean Lopeneko harrobia duela. Eskuinaldean Urrulloko harrobia.



1964ko otsaila.

Lezoko udal barrutiaren antolamendurako 1957an onartu zen Plan Orokorra zaharkituta geratu zen urte gutxiren buruan, batik bat industria berrien kokapenerako nahikoa espaziorik aurreikusten ez zuelako. Plan Orokorra berriro aztertu behar izan zen. Eta 1964an bertsio egokitua onartu zen, herriko kaskotik kanpo ere industrialde berriak finkatzen zituena.



1964ko otsaila.

1964an, Orbegozo fabrikaren zimendatze lanetan ari zirenean, F. Payer-ek harri leundu-
zko aizkora bat aurkitu zuen Barunga baserriaren lurretan. Lezoko udalerrian aurki-
tutako historiaurreko lehenengo tresna da, baina ez azkenekoa. Jaizkibel mendiak bere
baitan aberastasun arkeologiko handiak gordetzen ditu.



1964ko otsaila.

1960ko hamarkadan Lezoko nekazaritza lurak oso preziatuak bilakatu ziren sektore industrialarentzat. Irudiaren aurrealdean Granada, Abendaño, Txatxamendi, Ipintza eta Iribarren baserriak. Atzealdean, Gaintxurizketako errepideaz haraindi, Kaserna, Aritz-bakar, Sarasti, Irurtzun, Urune, Juanotene eta Amezti baserriak. Urte gutxiren buruan paraje horiek erabat aldatuta geratuko ziren.



1964ko otsaila.

Ipintzako zalditegia. Nuntziaturako idazkari Ipinza jaunak XVIIIgarren mendean eraikitako baserria eta inguruko lurak lasterketa zaldien hazkuntzarako egokitu zituen Ramón Behamonte-k. Irudiaren ezkerrean Iribarren baserria, Manuel Olasagasti Gaztelumendi (Lezo, 1924) idazlearen jaiotetxea. Hark idatziak dira besteak beste *Introducción a Heidegger* eta *Otras noticias de Dios* liburuak.



1964ko otsaila.

1960ko hamarkadan hainbat enpresarik bere fabrikaren kokaleku gisa Lezo aukeratze-ko arrazoien artean bi azpimarratu daitezke. Batetik, udalerriaren kokagune estrategikoa Pasaiaiko portuarekiko. Bestetik, Donostiako Plan Orokor berria, zeinaren ondorioz hiri-buruko fabrika ugari inguruko udalerrietara lekualdatu baitzen; Letaman eta Salva kasu.



1964ko otsaila.

Irudiaren aurrealdean sagardiak eta Sarastizabaleko harrobiko bidea. Bide horren bazterrean Aritzbakar baserria, XIXgarren mendean bolbora fabrika izandakoa. Eta haren jarraian Sarasti baserria, meta multzoa ondoan duela. 1799an Lezoko kargudunek Sarastiko lurretan hazitako 448 haritz landare erosi zituzten herri lurretan sartzeko.




1965eko ekaina.

Orbegozo fabrikaren eraikitze lanak. Esteban Orbegozok lehendik Zumarragan zeukan plantaren produkzioa handitzeko altxatu zuen Lezokoa. Portuaren hurbiltasuna erabakigarria izan zen kokapen berria aukeratzeko orduan. Eta urteak igaro ahala bertako instalazioak handitu egingo zituen.



1965eko ekaina.

Erramun Salaberriak (Lezo, 1927) gogoan ditu guraso eta anai-arrebekin Lopene baserrian emandako azken hilabeteak. Baserriak bi bizitza zeuzkan, eta lehendabizi haietako bat bota zuten; bertako familia Larrezabal etxera aldatu zen. Beraiek bertan jarraitu zuten Lopene baserri berria egin zieten arte. Alde egiteko unea iritsi baino lehen, ordea, enkargatu txatxu baten aginduz baserriaren kantoï bat bota egin zieten fabrikaren poste bat jartzeko asmotan, dolarea zein ukuilua agerian utziz. Esteban Orbegozori berari bidegabekeriaren berri eman zioten, eta honek bertara etorri eta botatako pareta zatiak berriro altxatzeko agindua eman zuen.




1965eko ekaina.

Irudiaren aurrealdean Jaizkibel galdaragintza lantegia. Gaintxurizketako errepideaz haraindi Celaya S.A. fabrikaren eraikitze lanak, non eraikuntza metalikoak egingo baitziren. Eta haren jarraian, herri bidearen alde bietan, zabortegia (aurrekoa Erroteta inguruan egon zen). Kale garbitzailea zaldi batek eramandako gurdiaz baliatzen zen etxeetako zaborra zamatuta eta bertara eramateko.




1965eko ekaina.

Irudiaren aurrealdean Aizepe etxea, Guraso Elkarteak sortutako eskolaren egoitza (“Lokala” bezala ere ezaguna), haur multzoa aurrean duela; eta Minkura eta Peliar baserriak. Pysbeko etxeen jarraian Aserraderos de Lezo enpresaren pabilioi handia. Eta besteak beste Zubitxon eraikitako etxebizitza bloke berria.



1965eko ekaina.

Letaman (Caucho Especial MRM S.A.). 1957an Francisco Letamendiak lantegi hori eta Iturringo tuneletik bertara doan errepide zatia eraikitzeko baimena eskatu zuen. Inguru horretako lehenengo fabrika izango zen. Eraikinaren ezkerrean Iturrin baserria, gerora bertan garatuko zen industrialde osoari izena emango ziona, eta goialdean Itsuebekoa zein Itsuerdikoa baserriak.



1965eko ekaina.

Iturrin baserria, Letaman eta trenbideaz haraindi Makurrengo harrobia. Martzelino Manterola (Hondarribia, 1931) bertsolaria hamabost urtez bizi izan zen Iturrin baserrian, ezkondu zenetik hura hustu behar izan zuten arte. Honako hau zioen *Lore apal bat* liburuan: “*Txoko polita eta patxara ederrekoa zan Iturrin’go txokoa. Zazpi famili bagiñan eta, beartzean alkarri lagunduaz, oso ondo konpontzen giñan*”.



1965eko ekaina.

Iberdueroren zentral termikoaren zimendatze lanak Errotetako plaian. Lezo eta Pasaiaren arteko muga Errotetan bertan dago, Bordandiako errotak egon ziren paraje berean, eta handik gora egiten du Kostaburuko errekan barrena. Kostaburu mendia ere jada makinek egindako lehen urratuekin ageri da, erregai likidoaren deposituak bertan eraikiko baitziren. Pausu berri bat Lezoko erriberaren porlaneztatze prozesuan.



1965eko ekaina.

Matxingo muturreko ikuspegi orokorra. Amildegia ertzean komentu zaharraren garaietatik zutik iraun zuen instalazio bakarra: bere baitan ostatua eta erizaindegia biltzen zituen eraikin luzexka.



1965eko ekaina.

1964ko abenduan Industrias y Abonos de Navarra (Sociedad Navarra de Industrias zena) oraindik ere Kaiako instalazioak handitu nahian zebilen. Baina azken ahalegin hori ere alferrikakoa suertatuko zitzaion. Besteak beste fabrika osasungaitz horrek lanean hasi zen une beretik kezkatu zituelako herritarrak. Herriko kaskoan egoteaz gain, haize nagusien norabideak ez zuen batere laguntzen airearen poluzioa gutxitzen.



1965eko ekaina.

1964ko abuztuaren 7an egindako batzarrean Allerru elkarteak sortu zen. Bere baitan esparru ugari bilduko zituen: mendia, pilota, futbola, eskubaloia, antzerkia, folklorea, kultura orokorra... Aurrerantzean herriko gizarte bizitzaren pizgarria izango zen. 1965ean, esate baterako, Goiko plazako eskubaloia kantxa egiteko baimena eskatu zuen.



1965eko ekaina.

La Papelera Española S.A. lantegia, nagusiki Errenteriako udalerrian. Bertako instalazio berriak 1965eko irailaren hamaikan inauguratu ziren, Francisco Franco caudilloaren aurrean. Ehunka langile zituen, eta horien artetik hainbat lezoarrak ziren. Trenbideaz haraindi besteak beste Darietaberri, Darietazarra, Matejoane, Etxetxo eta Gabiria baserriak.



1965eko urria.

1965ean Altamirako poligonoaren urbanizatze lanak hasi ziren. Bertan 862 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusi zen, 3.448 biztanle hartzeko asmotan. Instituto Nacional de la Vivienda zelakoak finantzatutako proiektuaren helburua Lezoko eta Errenteriako etxebizitza arazoei aurre egitea zen. Irudiaren erdialdean, lur urratuz inguratua, Altamira baserria.



1965eko urria.

Altamirako poligonoaren muga zehatzak trenbidea eta errepidea ziren. Eta urbanizazioak gainditu beharreko oztoporik larriena desnibela, 54 metrokoa. Hori zela medio, garaiera desberdinetako eraikinak proiektatu ziren: bi, hiru eta sei pisuko etxeak, bata bestearen segidan joango zirenak, eta baita hamabost pisuko dorreak ere. Guztira sei kale osatu behar zituzten. Irudiaren aurrealdean besteak beste Altzateberri etxea, poligonorako sarbidea ondoan eta Altamira baserria goialdean dituela, zepillo fabrika (Lobato), Villa Pía eta Villa Fermín, Villa Sabi, alkoholera (Unión Alcoholera Española S.A.) eta tren geltokia.



1965eko urria.

Pysbe auzoko sarreran Burruntene baserria, metak eta soroak inguruan dituela. Parez pare, gurdibide itxura duen Gaintxurizketako errepideaz bestaldean, Marrukone baserria (gaur egungo Pilarrenea etxea), alboan Errasti anaien aroztegia duela. Eta haren jarraian Celaya S.A. fabrika, oraindik eraikitze prozesuan.



1965eko urria.

Gaintxurizketako errepideaz haraindi Jaizkibel galdaragintza lantegia eta fundizio zaharra. Irudiaren atzealdean 1956an eraikitako San Pedro auzoa, sei sotoetan banatutako 38 etxebizitzetaz osatua. Urbanizazio hori 1950eko hamarkadan Gipuzkoan egiten zen arkitektura funtzionalaren erakusgarria da. Erramun Salaberriaren esanetan, etxe horiek egiteko erabili zen kare harria Lopeneko harrobitik atera zuten.



1965eko urria.

Iberdueroren zentral termikoa eraikitzerakoan Koxtape elkarte sanjuandarrak Errotetako plaian zeukan atletismo pista desagertu egin zen. Baina Kostaburuko errekatik Lezoko fabrikara ura eramateko Sociedad Navarra de Industrias zelakoak bertan zituen hodiak kontuan hartu behar izan ziren. Eta baita Puskazarretako errekatik Altzateko eta Kaputxinoetako fabriketara ura eramateko Real Compañía Asturiana de Minas-ek zituenak.



1965eko urria.

Bost urte lehenago Kale Nagusiaren eta Pasai Donibaneko errepide berriaren artean ia ez zegoen eraikinik. Soilik baratzak, etxe solteren bat eta Gure Bordako frontoi zaharra. Irudian, gune horretan bertan, Pikukaletik gora, etxadi berrien eraikuntza. Gaur egungo Jaizkibel hiribidearen zati garrantzitsu baten eraketa.



1966ko maiatza.

1966ko abuztuan Allerru elkarteak jada 444 bazkide zituen, eta bere baitako sail guztien berri zekarren buletin berri bat argitaratu zuen, hirugarrena. Bertan norbaitek gogoeta adierazgarri hau egin zuen: *“Gertakizun bat garrantzi izugarrikoa gertatu da: industrializazioa. Jaizkibel eta Altamiran zelai musker, garo eta piñu ugaritsuak, ortz aundizko tratorez beterik lur sabelak irikita, bere barrenak txoil autsiak eta gañekoak bidez beteak daude. Baserri aldean itzaltzen ari dira zaldi irrintzi eta bei ta idi marruak. Tximini aundiak ke eztulgarri ta zakarra batetik eta bestetik sortzen dutela. Nun gelditzen dira ibai eta erreka, txori eta kirkirren abesti zuzmugarriak?”*.



1966ko maiatza.

Altamirako poligonoaren gainaldean ikastetxea eraikitzeke asmoa zegoen. Merkataritza gune bat ere aurreikusi zen, alboan ikuskizun aretoa izango zuena. Eta parkea, berdegunez inguratua. Herriko kaskoaren hurbiltasuna zela medio, eliza eraikitzeke premiarik ez zen ikusi. Irudiaren atzealdean CAMPSAko deposituen zimendatze lanak.



1967ko abuztua.

1966an Goiko plaza eta Jauregialde artean auzo berri baten eraikuntza hasi zen. Lehenengo etxeak Pildainen baratzen egin ziren, eta 1967rako jada amaituta zeuden. Gero Palaziozarreko lurretan ere etxe gehiago eraikiko ziren. Altamirako poligonoa, aldiz, bertan behera utzi zen.



1967ko abuztua.

Iberdueroren zentral termikoa lanean. Bertan ikatza erretzerakoan sortzen den energiak, ziklo termodinamiko konbentzional bat dela medio, alternadore bat mugitu eta argindarra produzitzen du. Garai batean fuel-olioa ere baliatu izan zen erregai gisa, baina urte batzuk geroago erabiltzeari utzi egin zitzaion. Errepideaz haraindi, Kostaburu mendian, ur depositua. Eta zertxobait beherago fuel-olio deposituen eraikitze lanak.



1967ko abuztua.

Zentral termikoaren instalazio nagusiak Kostaburuko erreka harantz daude, Pasaia aldean. Instalazio osagarriak, aldiz, ikatz biltegia eta Kostaburuko deposituak erreka honantz, Lezoko aldean. Bi herriek egindako behin-behineko akordioaren arabera Pasaia zerga zein kontribuzioen ehuneko hirurogeita hamabostak kobratzea zegoen, eta Lezori ehuneko hogeita bostak.



1967ko abuztua.

1960ko hamarkadan Orbegozo fabrika laminazioa izan zen. Hotzeko laminatuak, beroko laminatuak eta burdinzuri elektrolitikoa egiten ziren. Eraikinaren goialdean Borda eta Urdalamarta baserriak. Ezkerraldean Lopene baserri eraiki berria, Lopene zaharreko azken biztanleen bizilekua, ezker-eskuin Intziartenea eta Bidealde etxeak dituela.



1967ko abuztua.

Portuaren hedapena zela medio, Industrias y Abonos de Navarrari Kaian zituen instalazioak desjabetu egingo zizkioten. Eta noski, bertan burutzen zituen jarduerak eten egin beharko zituen. 1966an, ordea, Urune baserriaren lurretan fabrika berri bat eraikitze-ko baimena eman zioten. Irudian instalazio berrien eraikitze lanak: Urune jada botea. Aurrealdean Gaintxurizketako errepidea. Atzealdean Irurtzun baserria, meta multzoa giblean duela, eta Eguzkialde etxea.



1967ko abuztua.

Iturrin baserria eta Letaman. Joseba Aurkenereenak (Donostia, 1956) paraje horretan kokatutako herri kontakizun bat jaso zuen *Lezoar sorgin munduaren oroimen bizia* artikuluan. Belar mozketa egin eta gurdia zamatuta ba omen zihoan baserritar bat goizean goiz Iturringo gurdibidetik etxe aldera. Alboko errekan arropa garbitzen ari zen emakume arrotz bat topatu zuen. Ikusminez hurbildu egin zitzaion, baina ustekabean anderea desagertu egin zen, jantzita zeraman soineko zuria belardiaren gainean utzita. Hura eskuetan hartu eta baserritarra sasi bihurtzea dena bat izan zen.



1967ko abuztua.

Iturrin baserria 1974an suntsitu zuten. Hiru bat urte lehenago iritsi zen, ordea, hura bota behar zutenaren abisua. Eta berehala hasi ziren Zubizarretik bertara zihoan erreka estali eta errepidea egiten. Martzelino Manterolak etxe galduari eskaini zion *Azken agurra* bertso-lerro gogoangarri hauekin bukatzen da: “*Gaur eztaukagu zure barruan / ezertxo ere uzterik, / begietatik ixuritako / negar-malkoak besterik*”.



1968ko uztaila.

Hornos Eléctricos Salva lantegia, alde batean Errekalde taberna (XIXgarren mendean benta izandakoa) eta bestean azpiestazio elektrikoa dituela. 1956an Jaime Llordes-ek lantegi hori eraikitzeko baimena eskatu zuen, eta 1963an jada lanean zegoen. Garai hartan gozogintzarako labe elektrikoez gain etxerako zein industriadako tresna elektrikoak egiten ziren bertan. Gaintxurizketa auzoarentzat pizgarria izan zen.



1968ko uztaila.

CAMPSAko faktoriaren eraikitze lanak (Compañía Arrendataria del Monopolio de Petróleos S.A.), Lezo eta Errenteriaren arteko mugan. 1966an Lezoko udalak zortziehun metro karratuko herri lur bat saldu zion konpainiari, Villa Victoria-rekin eta Kaputxinoetako bidearekin mugakide zena.



1968ko uztaila.

Villa Victoria erosten ere saiatu zen konpainia, baina Vassart familiaren kemena zela medio, ez zuen lortu. Etxea eta baratza itota geratu ziren trenbidearen eta erregai deposituen artean. Jose Luis Egiak 1998an egin zion elkarrizketan hauxe zioen Teresa Vassartek: *“Gu ohituraz kotxez jaisten ginen etxeraino, ikatza ekartzen zigun kamioiak ere gauza bera egiten zuen, baina Campsak bide guztiak desegin zituen. Une hartan ez genituen etxea eta lurra saldu nahi, 500.000 pezeta besterik ez baitziguten eskaini. Guk aprezio handia diogu honi. Anaia Juanitok halaxe esan zien: Nik ez dut Lezotik atera nahi, beraz Lezon beste etxe bat ematen badiguzue ondo, bestela ez”*.



1969ko maiatza.

1816ko abenduan Lezoko arrantzalez hornitutako txalupa bat hondoratu zen Hondarribiko barran, eta bederatzi lagun ito ziren. 1817ko ekainean Lezoko beste txalupa bat hondoratu zen Hendaia parean, eta zazpi lagun ito ziren; beste bat, Juan Bautista de Ulacia, arrantzarako gauza ez zela geratu zen. Lezoko baxurako arrantzaleek Jaizkibelgo portu eta arroketako bazter guztiak ezagutzen zituzten. Irudian Santa Barbarako garai bateko paradore probintziala, Hondarribiko udalerrian.



1969ko maiatza.

Jaizkibel artzain, arrantzale, ehiztari, arkeologo, kontrabandista, alga biltzaile, biologo eta naturazale ororen paradisua da. Zibilizazioari bizkarra emanaz han babeslekua aurkitu duenik ere izan da. Inaxio Tarragonak (Lezo, 1959) bertako kostaldean idatzi zituen lerro hauek: “*¡Oh! la mar, el mar. / Háblame con el lenguaje de tus olas. / Llévame sirena, sumérgeme contigo. / Llévame a paraísos escondidos / donde nada es realidad. / Esta dulce y eterna espiral, / la caída, el vacío...*”. Irudian Artzuko portua, Hondarribiko udalerrian.



1969ko maiatza.

Zentral termikoa oso kutsatzailea da. Besteak beste karbono dioxido kantitate handiak botatzen ditu atmosferara, berotegi efektuaren arazoa larriagotuz. Zentralen eraikuntzari dagokionean, ikatza erretzen duten gisa horretakoak dira guztien artean merkeenak. Hori dela medio, gaur egun zenbait herrialdeetan modu kezkagarrian ari dira hedatzen, Txinan kasu.



1969ko maiatza.

Erroteta eta Kaia lotuko zituzten muelle berrien eraikuntza: Lezo-1 (bigarren fasea; lehenengoa ikatz biltegiarena izan zen) eta Lezo-2, eskuinaldera hartzen duela. 1925ean *Nire erriaren bazterra* olerkian Jon Garbizu “Zubigar”ek azaldutakoak jada iraganaren oihartzunak baino ez ziren: “*Beste mutiko mordoxka berriz / galtzak jasota jostatzen, / an dabiltz bizkor, alai ta pozez / zerbait duten arrapatzen / arri ariñak altxatzen eta / astunak berriz astintzen / auen azpitik karramarro ta / aingirarik dan irtetzen...*”.



1969ko maiatza.

Aserraderos de Lezoren bulegoak Kale Nagusian zeuden, Andreone etxean. Portuaren hedapena zela medio, ordea, enpresa horrek lekuz aldatu beharko zituen Kaian eta Puntalen zituen fabrika zein biltegiak. Erriberaren goialdean Kostaburu mendia. Irudiaren atzealdean Platako farola, Arrokaundieta eta Puskazarreta baserria, Pasaiaiko udalerrian.



1969ko maiatza.

CAMPSAko faktoriak Real Compañía Asturiana de Minas-en lurak hartu zituen, eta baita Pakers gaileta fabrika zaharrarenak ere. 1970ean inauguratuko zuten. Bertako deposituetan itsasontziz ekarritako fuel-olioa eta bestelako petrolio-gaiak biltegitratuko ziren. Gero handik kamioiz, trenez eta itsasontziz Gipuzkoa osora eta inguruko probintzietara banatzeko.



1969ko maiatza.

CAMPSAko faktoriako deposituak nagusiki itsasoari irabazitako lurretan zeuden kokatuak. Irudiaren atzealdean, alkoleraren eta tren geltokiaren jarraian, Olibet gaileta fabrika, Errenteriako udalerrian. Olibet auzoa leku horretan bertan eraikiko zuten.



1969ko urria.

Lezoko badiako instalazioen lekualdaketa zela medio, 1969an Aserraderos de Lezo enpresa lur mugimenduak egiten hasi zen Ipintza baserriaren lurretan, bertan zerrategi bat eraikitzeko asmotan. Uruneko eskola, zuhaitzen artean ia erabat ezkutatua. Haren jarraian, Gaintxurizketako errepideaz haraindi eta Urune baserria egon zen paraje berean, Industrias y Abonos de Navarra, jada lanean. Irudiaren atzealdean Sarastizabaleko harrobia.



1970eko maiatza.

Lezo-1 eta Lezo-2 izeneko muelleen eraikuntza. Bigarrenak besteak beste Andreone etxearen behealdeko Puntale hartzen du, herritarren bizitzan garrantzi handia izandako parajea. Bertako plaian, esate baterako, 1863ko Santakrutz egunean antzara festa egin zen, udalak jarritako zortzi hegazti eta hirurogei errealekin.



1970eko uztaila.

1969ko ekainean Industrias y Abonos de Navarra-ri Kaian zituen instalazio zaharrak desagiteko baimena eman zitzaion. Irudiaren aurrealdean “Zikin”ek utzitako hutsunea. Atzealdean Orbegozo fabrikaren handitze lanak: altzairua ekoizteko labe elektrikoen nabe berria. Aurrerantzean fundizioa ere izango zen. Eta jarraian, urrutian, Litografía Danona-ren eraikina eta Industrias y Abonos de Navarra-ren instalazio berriak; gaur egungo Sagasti industrialdeko aitzindariak.



1970eko uztaila.

1970ean Pildainen baratzen eta Palaziozarreko lurretan eraikitako kale berrien izendegia onartu zen: Agustina Lizarazu eta Maria Zapiain de Pildain (gaur egungo Antonio Pildain kalea). Biak herriko maistrak izan ziren; eta bigarrena Kanarietako apezpiku Antonio Pildainen ama. Markesaneke zuhaitzen artean ia erabat ezkutatua ikastolako pabilioia. Irudiaren atzealdean, Kabiteaundi baserriaren behealdean, Intxorta etxearen eraikitze lanak. Eta, Villa Aterbea egon zen paraje berean, Ijurko auzoko lehenengo etxeen zimendatze lanak (Antonio Ijurco-ren ekimenez).



1970eko uztaila.

1970ean Lezok jada 4.057 biztanle zituen, 1960an baino 761 gehiago (1846an 700 besterik ez zituen). Industrializazioak aldaketa handia ekarri zuen. Aurreko mendetan lezoarren kopuru handi batek itsasoko jardueretan edo atzerriko lurretan topatu zuen bere ogibidea, Ameriketara kasu. XIXgarren mendean mantsoago eta XXgarrenean bizkorrago, ordea, fabriken hedapenak joera hori irauli egin zuen, bertakoek kanpora jo beharrean kanpotarrak erakarrit. Adibide esanguratsuena Orbegozo fabrikarena da: hirurehunik gora langile izatera iritsiko zen, horietako asko kanpotik etorriak.



1970eko urria.

Muelle egin berrien goialdean, Kostaburu baserri eroriaren jarraian, Eguzkitzako horma zuriak; Lezoko erriberan oso denbora gutxian emandako aldaketaren lekuko mutuak. Joxe Juan Ugalde “Munttar”ek (Lezo, 1960) *Bakarrizketa* olerki sortako lerro hauek eskaini zizkion baserri horri: “*Eguzkitza / Lezoko talaia / zelatari erne / lezoarron zaindari. / Entzun al dituzu gauean / gudarien oinkadak orbeletan? / Pasatu al dira bart kontrabandistak? / Noiz eraman dute etxeko mutila / burnizko bihozdunek?...*”.

Zenbait iturri

Besteak beste Inaxio Artola, Fernantxo Intxaurrendieta eta Erramun Salaberriaren azalpenak. Lezoko udal agiritegia. Lezoko Santakrutz jaietako egitarauak. Asier Sarasola, “Lezo” olerkia, in *Pagourte 2001*, Pagoarte, Oiartzun, 2002. Victor Hugo, *Voyages*, Robert Laffont, Paris, 1987. Daniel Garbizu, “Pasai bide” olerkia; Jon Garbizu, “Arrai tokia” eta “Nire erriaren bazterra” olerkiak; Tomas Garbizu, “Arkaitzeko ama” ipuina, in Patri Urkizu & Patxi Intxaurrendieta (editoreak), *Garbizu anaiak*, Lezoko Udala, Lezo, 1991. Miguel Angel Barcenilla, *La pequeña Manchester*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1999. Lope de Isasti, *Compendio historial de Guipúzcoa*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1972. Txema Arenzana, *Erretereria a través de sus mugas*, Erretereriako Udala, Erretereria, 2004. Tarsicio de Azcona, *Presencia de los capuchinos en Rentería*, Grupo Doctor Camino de Historia de San Sebastián, Donostia, 1983. Antxon Agirre Sorondo,

“Evolución demográfica de Lezo”, in *Lezo* aldizkaria, 3garren zenbakia, Lezo, 1989. Patrizio Urkizu Sarasua, *Zeren azken finean*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 1984. Patricio Urquizu, “Breve estudio antológico y léxico del tema marino vasco”, in *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, VII, Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián, 1973. Beatriz Herreras Moratinos & Josune Zaldua Goena, *Lezo: ondarea eta hiri garapena*, Lezoko Udala, Lezo, 2009. Martzelino Manterola, *Lore apal bat*, Auspoa, Tolosa, 1983. “Bi itz”, in *Boletín informativo para socios*, 3garren zenbakia, Allerru, Lezo, 1966. Joseba Presentación Barandiaran, “Lezoar sorgin munduaren oroimen bizia”, in *Lezo* aldizkaria, 2garren zenbakia, Lezo, 1989. Jose Luis Egia, “No nos moverán”, in *Lezo* aldizkaria, 18garren zenbakia, Lezo, 1998. Inaxio Tarragona, [*Manuscritos de Arranbil*], argitaragabea. Joxe Juan Ugalde, “Bakarriketa” olerki sorta, argitaragabea.

Argazkien erreferentziak

08. orrialdea PE 002388
10. orrialdea PE002503
12. orrialdea PE 002502
14. orrialdea PE 002511
16. orrialdea PE 002465
18. orrialdea PE 002470
20. orrialdea PE 002468
22. orrialdea PE 002467
24. orrialdea PE 002508
26. orrialdea PE 002505
28. orrialdea PE 002507
30. orrialdea PE 002506
32. orrialdea PE 002493
34. orrialdea PE 002703
36. orrialdea PE 002705
38. orrialdea PE 002706
40. orrialdea PE 002971
42. orrialdea PE 002980
44. orrialdea PE 002972
46. orrialdea PE 007020
48. orrialdea PE 007016
50. orrialdea PE 007167
54. orrialdea PE 018281
56. orrialdea PE 027371
58. orrialdea PE 027372
60. orrialdea PE 027375

62. orrialdea PE 027373
64. orrialdea PE 032783
66. orrialdea PE 032784
68. orrialdea PE 032786
70. orrialdea PE 032787
72. orrialdea PE 032788
74. orrialdea PE 032789
76. orrialdea PE 032790
78. orrialdea PE 038058
80. orrialdea PE 038061
82. orrialdea PE 038095
84. orrialdea PE 038096
86. orrialdea PE 038099
88. orrialdea PE 038098
90. orrialdea PE 038475
92. orrialdea PE 038501
94. orrialdea PE 038503
96. orrialdea PE 038504
98. orrialdea PE 038512
100. orrialdea PE 041035
102. orrialdea PE 041036
104. orrialdea PE 041041
106. orrialdea PE 041042
108. orrialdea PE 041045
110. orrialdea PE 041117
112. orrialdea PE 049790

114. orrialdea PE 049791
116. orrialdea PE 062654
118. orrialdea PE 062661
120. orrialdea PE 062662
122. orrialdea PE 062663
124. orrialdea PE 062680
126. orrialdea PE 062681
128. orrialdea PE 062682
130. orrialdea PE 077307
132. orrialdea PE 077312
134. orrialdea PE 077311
136. orrialdea PE 088780
138. orrialdea PE 088777
140. orrialdea PE 089096
142. orrialdea PE 089097
144. orrialdea PE 089099
146. orrialdea PE 089101
148. orrialdea PE 089102
150. orrialdea PE 095505
152. orrialdea PE 105386
154. orrialdea PE 109933
156. orrialdea PE 109934
158. orrialdea PE 109932
160. orrialdea PE 115363



LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA